



Usurbilgo Udala

2024/01/30

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2024KO URTARRILAREN 30EAN
GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Ainhoa Arrozpide Landa, Iratxe Begiristain Otegi eta Xabat Beloki Segurola.

Idazkaria: Xabin Juaristi Arrieta.

Ez da bertaratu: Joxe Mari Lizaso Azkonobieta.

1.- 2023KO ABENDUAREN 29KO AKTA ONARTZEA.

2023ko abenduaren 29ko aktan zuzenketa hau egin da.

Hau dion lekuan: "Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-6 (Agerreazpi) Sektoreko BEP 3.4 eta BEP 3.5 partzeletan".

Hau esan behar du: "Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-6 (Agerreazpi) Sektoreko BEP 3.5 eta BEP 3.6 partzeletan".

Behin zuzenketa eginda, batzarkideek aho batez onartu dute 2023ko abenduaren 29ko akta.

2.- KULTUR SORKUNTZARAKO 2023KO DIRULAGUNTZEN KITAPENA (2023UDSO0001).

Espedienteak:

Ixabel Agirresarobe	Usurbil Borobil- 2023-UDSO 0002
Buztinzulo Keramika Elkartea	Horma irudia elkarrekin sortuz 2023-UUDSO 0003
Beñat eta Zorione	Vachoca 2023-UDSO 0004
Ixabel Agirresarobe	Txulotik 2023-UDSO 0005

IKUSIRIK

Kultur sorkuntzarako dirulaguntza oinarriak 2023ko otsailaren 17an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko uztailaren 13an egindako bilkuran behin betikoz onartu



Usurbilgo Udala

2024/01/30

zituen 2023ko kultur egitasmoak burutzeko dirulaguntzak.

Eskatzaileek dirulaguntza zuritzeko agiriak aurkeztu dituzte.

ETA KONTUAN HARTURIK

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01)
- Usurbilgo Udalaren 2023-2025eko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa
- Sormen egitasmoak garatzeko dirulaguntzen oinarriak (GAO, 2023/02/17)

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Honako eskatzaileei sormen arloko dirulaguntzaren bigarren zatia ordaintzea:

ESKATZAILEA	EKINTZA	ORDAINTZEKOA
Ixabel Agirresarobe	Usurbil Borobil	221,25 €
Buztinzulo Keramika Elkarte	Horma irudia elkarrekin sortuz	705,38 €
Beñat eta Zorione	Vachoca	613,40 €
Ixabel Agirresarobe	Txulotik	528,75 €
GUZTIRA		2.068,77 €

Bigarrena: Sormen Alorreko dirulaguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira:
1 1 4000.481.334.00.06 2023 (A/173 – 2023)

Hirugarrena: Oinarrien 12. artikulua jasotzen duen modura: “f) *Onuradunak sorkuntzaren aurkezpena jendaurrean burutuko du Usurbilen. Aurkezpen edo emanaldiaren data eta lekua Kultura, Euskara eta Gazteria Sailarekin adostuko du. Data hori ez da dirulaguntza deialdiaren hurrengo urteko ekaina baino beranduago izango.*”

Laugarrena: Interesdunei akordioaren berri ematea.

Bosgarrena: Kontu-hartzailetzari akordioaren berri ematea.

3.- KULTUR EGITASMOAK BURUTZEKO 2023KO DIRULAGUNTZEN KITAPENA (2023UDIU0001).

Espedienteak: Mikel Usabiaga Sukia– Kantu Taldea (2023UDU0002)
Booktegia Kultur Elkarte Aritz Branton (2023UDU0003)
Usurbilgo Joaldunen Elkarte (2023UDU0004)
Einean guraso Eskola (2023UDIU0005)
Juan Luis Atxega Pagola (Organoen Lagunak)(2023UDIU0006)
Gipuzkoako Bertsozale elkarte (2023UDIU0007)



Usurbilgo Udala

2024/01/30

Aztarriko Usurbilgo Gazte Asanblada (2023UDIU0008)
Iñigo Arzallus Sagardia-Erraldoi eta Buruhandien konpartsa (2023UDIU0009)
Etumeta Aek Euskaltegia (2023UDIU0010)
Belmonte auzo elkarte (2023UDIU0011)
Hitz Aho Udarregi ikastolako gurako Elkarte (2023UDIU0012)
Jexux Agirresarobe Arzallus (Nafartarrak) (2023UDIU0013)
Udarregi Ikastola Koop (2023UDIU0014)
Txokoargi Kultur Elkarte (2023UDIU0015)
Jexux Artze Kultur Elkarte (2023UDIU0016)
Orbeldi Dantza Taldea (2023UDIU0017)
Bihurri Txiki Ludoteka (2023UDIU0018)
Zubietako Eskolako Guraso Elkarte (2023UDIU0019)
Noaua! (2023UDIU0020)
Antxomolantxa (2023UDIU0021)
Agurtzane Alkorta-Erroizpe Kultur Elkarte (2023UDIU0022)
San Praixku Guraso Elkarte (2023UDIU0023)
Santuenea Kultur Elkarte (2023UDIU0024)
Ziortza Gazte Elkarte (2023UDIU0025)
Eliza Zaharra Herri eta Kultura Elkarte (2023UDIU0026)

IKUSIRIK

Kultur egitasmoak burutzeko dirulaguntza oinarriak 2023ko otsailaren 17an argitaratu zituzten Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko ekainaren 22an egindako bilkuran onartu zituen behin betikoz 2023ko kultur egitasmoak burutzeko dirulaguntzak.

Aipaturiko elkarteek euren ekintzak burutzeko emandako dirulaguntzak zuritu dituzte.

ETA KONTUAN HARTURIK

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01)
- Usurbilgo Udaleko 2023-2025eko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa
- Kultur egitasmoak garatzeko dirulaguntzen oinarriak (GAO 2023/02/17)

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LLehenengoa: Honako eskatzaileei kultura arloko dirulaguntzaren bigarren zatia ordaintzea:

Eskatzailea	Ekintza	Ordaintzekoa
Mikel Usabiaga Sukia– Kantu Taldea	1,2,3	565,50 €



Usurbilgo Udala

2024/01/30

Booktegia Kultur Elkarte Aritz Branton	4	1.638,75 €
Usurbilgo Joaldunen Elkarte	5	665,00 €
Einean guraso Eskola	6,7,8,9	242,50 €
Juan Luis Atxega Pagola (Organoen Lagunak)	10	416,02 €
Gipuzkoako Bertsozale elkarte	11	191,94 €
Iñigo Arzallus Sagardia - Erraldoi eta Buruhandien konpartsa	13	43,94 €
Etumeta Aek Euskaltegia	14	136,56 €
Hitz Aho Udarregi ikastolako gurako Elkarte	18,19	278,47 €
Jexux Agirresarobe Arzallus (Nafartarrak)	20,21	521,25 €
Udarregi Ikastola Koop	22	137,50 €
Txokoargi Kultur Elkarte	23,24,25,26,27,28,29,30,31,32	370,79 €
Jexux Artze Kultur Elkarte	33	940,04 €
Orbeldi Dantza Taldea	34,35,36	904,76 €
Bihurri Txiki Ludoteka	37,38,39,40,41,42	579,92 €
Zubietako Eskolako Guraso Elkarte	43,44,45,46,47,48	1.389,64 €
Noaua!	49,50,51,52	3.037,51 €
Antxomolantxa	55,56,57,58,59	1.024,10 €
Agurtzane Alkorta-Erroizpe Kultur Elkarte	61,62,63	315,00 €
San Praixku Guraso Elkarte	64,65,66,67,68	566,25 €
Santuenea Kultur Elkarte	69,70,71,72,73,75,76,77,78,79,80,81,82	960,10 €
Ziortza Gazte Elkarte	83,84,85,86	2.407,50 €
	Guztira	17.333,04 €

Bigarrena: Eskatzaile hauek Udalari diru-itzulketa egitea:

Eskatzailea	Ekintza	Itzultzekoa
Aztarriko Usurbilgo Gazte Asanblada	12	-425,00 €
Belmonte auzo elkarte	15,16	-1.893,75 €
Eliza Zaharra Herri eta Kultura Elkarte	87,88,89,90,91,92	-2.118,54 €



Usurbilgo Udala

2024/01/30

	Guztira	-4.437,29 €
--	----------------	--------------------

Diru-itzulketa jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean egin beharko da, Udalaren kontu zenbaki hauetakoren batean:

KUTXA: 2095 5069 07 1060024832
EUSKADIKO KUTXA: 3035 0140 30 1400900017

Hirugarrena: Kultura Alorreko dirulaguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.4000.481.334.00.03.2023 (A174-2023).

Laugarrena: Interesdunei akordioaren berri ematea.

Bosgarrena: Kontu-hartzaitzari akordioaren berri ematea.

4.- GIZARTE ZERBITZUEN ARLOAN EGITASMOAK BURUTZEKO 2023KO DIRULAGUNTZEN KITAPENA (2023GDEA0001).

Ikusirik

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko urtarrilaren 31ko datan, 2023. urtean gizarte zerbitzuen arloan egitasmoak garatzeko dirulaguntza oinarriak onartu zituen.

Aipatutako oinarriak 2023ko otsailaren 17an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta eskaerak aurkezteko epea ireki zen. Guztira 17 eskaera jaso ziren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko ekainaren 22ko datan, dirulaguntza kopuruak onartu zituen eta baita 1. zatiaren ordainketa ere.

Orain, eskatzaileek dirulaguntzaren zuriketa aurkeztu dute.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituena.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).
- Usurbilgo Udaleko 2023-2025eko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (GAO 2023-02-01).
- Dirulaguntza oinarriak (GAO, 2023/02/17)
- 2024/01/25-eko teknikariaren txostena.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko dirulaguntzaren bigarren zatia ordaintzea:



Usurbilgo Udala

2024/01/30

Eskatzailea	2. zatia
ACABE , Euskadiko anorexia eta bulimiaren kontrako elkarteak	470,37 €
ADAHIGI , Arreta Gabeziaren nahastea, Hiperaktibitatearekin edo gabe	298,28 €
ADEMG , Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitzaren elkarteak	229,45 €
AGI , Gipuzkoako ikusmen urria dutenen elkarteak	424,48 €
AGIAC , Gipuzkoako antikoagulatuen elkarteak	321,23 €
AGIFES , Buru eritasuna duten pertsonen familien elkarteak	344,17 €
AGIPASE , Krisi egoeran dauden Gipuzkoako familiei laguntzeko elkarteak	424,48 €
ALCER GIPIZKOA , Giltzurruneko gaixotasuna duten pertsonen gipuzkoako elkarteak	332,70 €
ASEBIER , (Enfermedades raras Pais Vasco Espina Bifida e Hidrocefalia)	229,45 €
ATECE GIPIZKOA , Traumatismo kraneo-enzefalikoa eta burmuineko kaltea duten pertsonen gipuzkoako elkarteak	275,34 €
ATZEGI , Adimen urritasuna dutenen eta beraien familien bizi kalitatea hobetzeko elkarteak	458,89 €
BIHOTZEZ , Sortzetiko kardiopatia duten haur, gazteei, eta haien familiei laguntza emateko elkarteak	229,45 €
GAUTENA , Autismoaren Espektroko Nahastea duten pertsonen senideen elkarteak	355,64 €
GENE , Gipuzkoako eritasun neuromuskularren elkarteak	390,06 €
IZAN FUNDAZIOA , Gizabanakoa droga mendekotasunaren aurrean babesteko elkarteak	504,78 €
ORTZADAR , Adimen urritasun ertaina eta arina duten pertsonen elkarteak	332,70 €
PAUSOKA ELKARTEA , Behar bereziak dituzten haurren gurasoen elkarteak	378,59 €

Bigarrena: Bigarren zatiaren ordainketak partida honen kargura joango dira: 1.8000.481.231.03.02.2023 (A 83-2023).

Hirugarrena: Kontuhartzaileari erabakiaren berri ematea.

Laugarrena: Interesatuei erabakia jakinaraztea.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 10:00k direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.